



6. DINAMIKA. LAN MERKATUA: NIRE INTERESEKO SEKTOREAREN ANALISIA

HELBURUA	Lanari buruzko hautemateak identifikatzea
IRAUPENA	30' (5' materiala banatzea eta ariketa azaltzea, 10' banakako lana eta 15' bateratze lana)
MATERIALAK	Idazteko materiala "ZER EZAUGARRI ETA AUKERA DITU NIRE JOMUGA DEN SEKTOREAK?" taula
GARAPENA	<p>Ariketa dinamizatzeaz arduratzen denak ikasleei azaldu behar die oso garrantzitsua dela jomuga den sektorearen ezaugarriak sakon ezagutzea eta lan bat aukeratzekoan zenbait faktore kontuan hartzea.</p> <p>"ZER EZAUGARRI ETA AUKERA DITU NIRE JOMUGA DEN SEKTOREAK?" taula banatu (fitxa honen eranskina) eta adibideen bidez nola bete behar den azaldu behar da. Garrantzitsua da informazioa eskura izatea edo ariketaren sarrera aurreko saio batean egitea, benetako informazioa bildu ahal izateko. Informazio hori komunikabideetatik zein ikasgelako iruzkinetatik, askotariko informaziotik edo norbere ondorioetatik lor daiteke. Ikasleei taula banaka betetzeko beharrezko denbora eman ondoren, egindako lana taldeko gainerako kideekin bateratu behar da, errealitatearekin bat datorren ikusteko.</p>
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Parte-hartzea ✓ Lanbide errealitatea ezagutzea ✓ Desberdintasunak lehentasunei eta arrazoiei dagokienez (generoa?) ✓ Talde barruko harremanak.



ZER EZAUGARRI ETA AUKERA DITU JOMUGA DUDAN SEKTOREAK?

Zenbatu esaldi bakoitza 0tik 5era, txikitik handira, ados zauden edo ez kontuan hartuta:

Laneratzeko erraztasuna oro har

Gorantz ari den sektorea

Eskualde berean lana aurkitzeko aukera

Sektore horretan familia bizitza, bizitza pertsonala eta bizitza profesionala uztartu daitezke

Lanbide-sustapenerako aukera

Beste ezagutza batzuk izatea komeni da (hizkuntzak, informatika zehatza, etab.)

Soldata urriak sektorearen ezaugarri dira

Lanbide-intrusismoa

Txandakako lanaldia

Aurretiatzko esperientzia handia eskatzen da

Sektorea guztiz maskulinituta dago

Enpresak deslokalizatzeko aukera

Eginkizun horiek gauzatzeko trebatu diren pertsonen indize handia

Sektorea guztiz feminizatuta dago